


PROLOG PC-entzat

ACT etxeak, adimen artifizialaren arloan hainbat produkturen garatzaile eta banatzaileak, Xilog V2, PC eta bateragarrirentzat Prolog lengoaiaren bertsio berri bat aurkeztu du. Bertsio berri honek arau standard-ak betetzen ditu. Beraz, bertsio honetan sortutako programak miniordenadoreetan ere funtzionatu ahal izango dute. 200 erregelatik gora ditu eta hiru bertsio daude: hasiberrirentzat (1.174 F), garapenerako (5.811 F) eta profesionalentzat (8.183 F)

Interesgarria da benetan adimen artifiziala eta sistema adituen arloan erabilienetakoa den lengoia PC-tan erabili ahal izatea. Prolog-en egindako programek ez zaizkio sekuentzia bati jarraitzen; zuhaitz-egiturari baizik. Soluzioaren bilaketan zuhaitzaren adar batetik edo bestetik abia daiteke, hartu duen bidea okerra dela ohartutakoan atzera jo eta beste bide batetik jarrai daitekeelarik; hau da, hain zuzen ere backtraking (atzera jotze) deritzona. Hau dela eta, prozesu-denborak txikiagotzeko bilaketa horiek paraleloan egiteko posibilitatea aztertu da eta paralelotasun hau onartuko duten mikroprozesadoreen sorketa ikertzen ari da. Gaur egun guzti hau IBM 3083 eta Macintosh Plus-ean simulatzen da.



MINTEL-AREN EMULAZIOA

Hona hemen aukera ederra mikroordenadoreen jabeentzat. Datu-baseak ugaltzen ari diren honetan, interesgarria izan daiteke mikroordenadorea datu-base hauek kontsultatzeko erabiltzen den terminal bezala erabiltzea; hau da, MINITEL-a emulatzea. Hau egitea ez da batere zaila eta ezta garestia ere. Mikroordenadoreari modem bat konektatzea aski da.

MINITEL terminal bat edukiz gero, datu-basetako edozein informazio eskura daiteke, eta ez hori bakarrik: baita mikroordenadorean normalean erabiltzen ditugun testu-lanketa edota beste edozein programatan landu ere. Kontsulta hauek egiteko nahikoa da telefono-dei bat egitea. Datu-basetik jasotzen dugun informazioa disko batean ere gorde daiteke.



UZEI elkarteak esate baterako, sortua du jadanik EUS-KALTERM datu-basea, non landu dituzten hiztegiak hitz eta informazio guztia kontsulta baitaiteke. Ikusten duzue, euskal terminologiari buruz izan ditzakegun zalantzak argitzeko bide ezinhoba eskaini digute.

NEXUS, SISTEMA ADITUEN SORTZAILEA

Sistema adituak, izenak dioenez, aditu baten jokabidea simulatzen duten aplikazio informatikoak dira. Sistema hauek inferentzi erregelaz osatutako ezagumendu-multzo handi batean oinarritzen dira batipat. Ezagumendu-multzo hauetatik ondorioak ateratzeko, inferentzi motore batez baliatzen dira.

Dagoeneko, baduade merkatuan sistema aditu hauen garapenerako erreminta lagungarriak eta hauetako bat Mind Soft etxeak kaleratu duen Nexus dugu; sistema adituen sortzailea. Honek, informatika tradizionala eta adimen artifizialaren arteko lotura ezarri du. Beraz, erregelen bidez nahiz aginduen bidez adierazitako ezagumenduak landu ditzake. Ezaugarri honek erabiltzailearen beharretara ondo egokitutako sortzaile bihurtzen du.

Sistema adituen sortzaile honek, 640 Kb-ko memoria eta bi disket-unitate dituzten IBM PC eta bateragarrietan eta Macintosh Plus-ean funtzionatzen du oraingoz.

ORDENADORE PERTSONALA ERANTZUNGAILU AUTOMATIKO BEZALA

Orain arte ordenadore pertsonalek burutzen dituzten ekintzez gain, erantzungailu automatiko bezala funtzionarazten dion tarjeta bat kaleratu da. Dirudienez, behin tarjeta instalatutakoan ordenadoreak telefonoak jotzen duenean egiten ari den lana utzi, telefono-deiari erantzun eta ondoren utzitako lanari berrekiteko nahikoa da software egokia martxan jartzea.

Jasotako mezuak modu digitalean gordetzen dira ekipoko disko gogorrean. Bestalde behar den bakoitzean erabiltzaileari pantailan deiaren berri emango zaio. Tarjeta honekin mezuak buzoietan gordeta ere utz daitezke.